

**FRANCISCA DE ACULODI****Sariaren XI Edizioa**

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren XI. Edizioaren —2023/2024 ikasturtea— Ingeniaritza eta Arkitektura jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 2 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako lan hauei ematea erabaki du:

Euskeraz:

**MINBIZI GINEKOLOGIKOEN MARKATZAILE MOLEKULARREN BILA  
AUSAZKOTZE MENDELDAR ANALISI BAT**

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiek 2025ko otsailaren 14a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-x-edizioa> orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.



Euskeraz eginiko lanaren irabazlea:

**Olaia Farto Juaristi**

Biologiako Gradua

Tutorea: Iraia Garcia Santisteban

**MINBIZI GINEKOLOGIKOEN MARKATZAILE MOLEKULARREN BILA  
AUSAZKOTZE MENDELDAR ANALISI BAT**

LABURPENA

Minbizi ginekologikoen, hala nola, zerbixeko, endometriko eta obulutegiko minbiziaren kasuak, historikoki prognosi eskasarekin eta tratamendu gutxiarekin erlazionatu izan dira. Emakumeen artean gaixotasun horien prebalentzia handia bada ere, baldintza horien atzean dauden mekanismoak ezezagunak dira. Minbizi konplexu horietan, genetika arrisku-faktore garrantzitsua da. Lan honetan, DNAREN metilazioaren eta deskribatutako gaixotasunen garapenaren artean lotura potentzialki kausalik dagoen jakiteko, ausazkotze mendeldar analisi bat egin dugu. Horretarako, aipatutako hiru gaixotasunen genoma osoko asoziazio ikerketak (GWAS) eta fluido endometrialako metilazioaren loci kuantitatiboaren datuak (mQTLak) konbinatu ditugu. Gure SMR analisisian honako emaitza hauek lortu ditugu: **TAP2**, **MICB**, **PAX8**, **LOC440839**, **LOC654433** eta **ATRN** geneen ondoko DNA metilazioa zerbixeko minbizian. Endometriko minbiziaren kasuan, **HNF1B** genearen ondoan dagoen DNA metilazioa, eta, azkenik, obulutegiko minbizian, **MAPT**, **LOC10012897**,

**LOC100130148**, **MGC57346-CRHR1** eta **ABO** geneen ondoan dagoen DNAREN metilazioa. Beraz, gene horien ondoan dauden CpG-en metilazioek agerian uzten dute fluido endometrialaren epigenoma hainbat gaixotasun ginekologikoren patogenesisian bitartekari gisa jardun dezakeela. Gurea bezalako azterlanak gaixotasun konplexuen etiopatogenia ulertzeko erabilgarriak direla esan dezakegu, eta arlo horretan etorkizunean ikerketak gehiago egitearen beharra azpimarratzen dute.